



FORMAKUNTZA ESKAINTZA
Egonkortze formakuntzak
Euskara modu iraunkorrean instalatzea

Euskara Bide-orria

Euskararen erabileraren bide-orri bat instalatzea

5 eguneko formakuntza (35or.)

HELBURUAK

- Zure egitura profesionala edo kolektiboa, eta bere ingurunea, euskararen ahozko eta idatzizko erabileraren ikuspegitik aztertzea.
- Euskararen erabileraren bide-orri bat elkarrekin eraikitzea, eta egitura profesional edo kolektiboaren funtzionamenduan txertatzea.

Formakuntza finitzean, gai izanen zara:

- zure egituraren euskararen erabilera errexagoa lortzeko, ahoz zein idatziz, bakoitzaren urratsak eta beharrak identifikatzeko.
- urrats eta behar horiek kolektiboki bide-orri batera eramateko, zure egituraren euskararen erabilera iraunkorra ahalbidetuko duena, epe laburreko, ertaineko eta luzeko maila operatiboak identifikatuz.
- bide-orria zure egituraren funtzionamenduan txertatzeko behar diren antolaketa- eta erabaki-espazio estrategikoak identifikatzeko.
- urtez urte, zure egituraren euskararen erabilera iraunkorra lortzeko aurrerapenak eta gelditzen diren beharrak ebaluatzeko.

EDUKIA

1. Eguna, goiza – Norbanakoen pertzepzioak eta hizkuntza-desafio globalak

Formakuntzaren abiatzea.

Bakoitzaren pertzepzioak eta euskararekiko duen harremana.

Euskararen biziberritzearen desafio oinarriak,

Publikoen segmentazioa (euskaraz ez dakitenak, ikastunak, euskaldunak).

1. Eguna, arratsaldea – Berezko beharrak eta bide-orri baten lehen elementuak

Publiko bakoitzaren urratsen eta beharren identifikazioa, euskararen erabilera errexagoa izan dadin.

Bide-orri baten oinarritzko elementuen aurkezpen orokorra.

Aitzinetik segmentatu publikoen urrats eta beharrekin lotura.

2. Eguna, goiza – Euskararen idatzizko erabilera – Kanpo-komunikazioa

Kanpo-komunikazioaren eremuan (seinaletika, hedapen-euskarriak...) euskararen idatzizko erabileraren egoeraren azterketa kolektiboa.

Egituraren euskarrietan euskararen erabilera bermatzeko egin beharreko aldaketei buruzko tresnak eta erabakiak.

2. Eguna, arratsaldea – Euskararen idatzizko erabilera – Barne-komunikazioa

Barne-komunikazioaren eremuan (seinaletika, emailak, deialdiak...) euskararen idatzizko erabileraren egoeraren azterketa kolektiboa.

Egituraren euskarrietan euskararen erabilera bermatzeko egin beharreko aldaketei buruzko tresnak eta erabakiak.

3. Eguna, goiza – Euskararen ahozko erabilera – Kanpo-komunikazioa

Kanpo-komunikazioaren eremuan (harrera-guneak, ekitaldiak...) euskararen ahozko erabileraren egoeraren azterketa kolektiboa.

Egituraren espazioetan euskararen erabilera bermatzeko egin beharreko aldaketei buruzko tresnak eta erabakiak.

3. Eguna, arratsaldea – Euskararen ahozko erabilera – Barne-komunikazioa

Barne-komunikazioaren eremuan (biltzar nagusia, bilerak, memento informalak...) euskararen idatzizko erabileraren egoeraren azterketa kolektiboa.

Egituraren espazioetan euskararen erabilera bermatzeko egin beharreko aldaketei buruzko tresnak eta erabakiak.

4. Eguna, goiza – Bide-orriaren lehen bertsioa – Idatzizko erabilera

2. Egunetik atera bide-orriaren lehen bertsioaren inguruko lan kolektiboa.

Zuzendu edo zehaztu beharreko puntuak, eta identifikatu egokitzapenen balidazioa.

Lehen kronograma baten ezarpena.

4. Eguna, arratsaldea – Bide-orriaren lehen bertsioa – Ahozko erabilera

3. Egunetik atera bide-orriaren lehen bertsioaren inguruko lan kolektiboa.

Zuzendu edo zehaztu beharreko puntuak, eta identifikatu egokitzapenen balidazioa.

Lehen kronograma baten ezarpena.

Tarteko lanak: Formakuntzan egin lanak kontuan harturik, bide-orriaren behin betiko bertsioa.

5. Eguna, goiza – Bide-orriaren txertaketa funtzionamenduan

Egituraren antolaketa- eta erabaki-espazio estrategikoen identifikazioa.

Gure funtzionamenduan, bide-orriaren balidazioa, ebaluazioa eta eguneratzea nola antolatuko den definitzea.

5. Eguna, arratsaldea – Bide-orriaren azken bertsioa

Tarteko lanen berrikuspena: bide-orriaren aurkezpena.

Egin aurkezpenari buruzko solasaldia.

Taldearen azken balidazioa.

Ebaluazioa, balorazioa eta etorkizuneko ikuspegiak.

PUBLIKOA

Egitura profesional edo kolektiboetako langile, arduradun, boluntario euskaldun, ikastun eta erdaldunak.

Arduradunen presentzia biziki gomendatzen da bide-orria egituren errotzea errazteko.

Gutxienez 6, gehienez 12 pertsonako taldeak.

Urritasunen bat duten pertsonentzat, jar zaitezte harremanetan zuzenean administrazio arduradunarekin (Gratien Harlouchet Kamila) 06 61 50 09 29 zenbakian, behar bereziak aztertu eta ezar litezkeen egokitzapen posibleak ikusteko.

BEHARREZKOA

Ez da aitzin-baldintzarik behar.

ORDUTEGIA & EGUTEGIA

Formakuntza 5 egunekoa (9:00–12:30 // 13:30–17:00). Egun erdika deklinagarria.

TRESNAK & OINARRI PEDAGOGIKOAK

- Metodo pedagogikoak: saio dinamikoak, ilustratuak eta parte-hartzaileak. Eduki teorikoen eta aplikazio praktikoen uztarketa. Ikuspegi inklusibo eta progresiboa, talde-kohesio handia sortzen duena. Bi formatzailez osatu talde pedagogikoa, ikastunei ikuspegi global eta osagarria eskaintzeko.

- Tresnak: Lanketa jarraitua, ikastunen eta egituren beharretara egokitu bide-orri bat osatu arte. Wifi, bideo-proiektagailua eta tokian berean bazkaltzeko aukera.

TALDE PEDAGOGIKOA

2 formatzaile esperientziadun:

Eneko Gorri: erakundeen komunikazioan eta soziolinguistikan diplomaduna, 12 urteko esperientzia toki-administrazio publikoko zerbitzuburu gisa, eta 20 urte baino gehiagoko engeiamendua elkarte munduan.

Xan Aire: 16 urteko esperientzia soziolinguistika-formatzaile gisa, irakasle, animatzaile, boluntario, langile eta tokiko agenteentzat.

edo

Helene Xarriton: 30 urteko esperientzia euskararen irakaskuntzan eta formatzaile gisa.

EBALUAKETA

Formakuntzan ikasitakoaren azken ebaluazioa.

Formakuntza bukatzean, parte-hartzaileek ebaluazio orokorra eginen dute satisfakzio-galdetegi baten bidez.

Formakuntzatik 3-6 hilabetera, parte-hartzaileek eta egiturak ebaluazio orokor bat eginen dute, euskararen erabilerari buruzko galdetegi baten bidez.

FORMAKUNTZA AGIRIA

Formakuntza-ziurtagiria.

SEGIDA POSIBLEAK

- Euskaraz ez dakiten langile edo kideak euskarara hurbiltzea deskubritze-ziklo baten bidez (14or. -> 42or.), ondotik gure partaide-sarearen bidez euskara ikasteko bide ziurtagiridun batean sartzeko aukera aztertze.
- Langile edo kide euskaldunak formatzea, ingurune profesional edo kolektiboan euskararen ahozko erabilera errexa izateko jarrera eta teknikak eskura ditzaten | 14or.
- Formakuntzatik 2 urtera, onartutako bide-orria berriz hartzea, egituraren behar berrien arabera doitzen ikasteko | 17,5or.

PREZIOA

- 28 € / ordu eta ikastunka
- Formakuntza osoa 392 € BEZ TVA barne ikastun bakoitzeko.

Data:
XX XX XX

Eskaintza hau 60 egunez baliagarria da.

Eguneratzea: 2026/07/31